



EBAZPENA, 2022ko azaroaren 21ekoa, Euskadiren Mexikoko ordezkariarena: Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzako Enpresa-arloko Aduradunaren lanpostua betetzeko hautaketa-prozesurako deialdia egiten duena.

Lehendakaritzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa den urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuak Euskadik kanpoan dituen ordezkariak arautzen ditu. Euskadiren Mexikoko Ordezkaritza horien artean dago.

Urtarrilaren 12ko 3/2021 Dekretuaren bidez, Euskadiren Mexikoko ordezkaria izendatu zen.

Euskadiren Mexikoko Ordezkaritza behar den langile-azpiegituraz hornitzeko, ebazpen honen bidez pertsona bat kontratatzeko prozesua hasi nahi da, Mexikoko lan-araudian ezarritakoaren arabera, hutsik geratu den Enpresa-arloko Aduradunaren lanpostua betetzeko.

Urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuak 19.3 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra.

Euskadik Mexikokon duen Ordezkaritzaren zerbitzurako, Enpresa-arloko Aduradunaren kategorian, lan-kontratu finkoko lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesurako deialdia egitea, ebazpen honen eranskinean adierazten diren deialdiko oinarrien arabera.

Azken xedapen bakarra.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiok Kanpo Harremanetarako Idazkari nagusiari hilabeteko epean. Hemen argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera:

<https://www.euskadi.eus/kanpoko-ordezkaritzen-lan-eskaintza-aktiboak/web01-s1leheki/eu/>

JOSE MARIA CAZALIS EIGUREN
Delegado de Euskadi en México

**ANEXO****BASES DE LA CONVOCATORIA****1.- DEIALDIAREN XEDEA.**

1.1.- Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzarako lan-kontratuko langile finkoen lanpostu bat betetzea da deialdi honen xedea, kategoria honetan:

- Idazkaritzako langileak/Administrazioko laguntzaileak.

Postuaren kokapena: Euskadiren Mexikoko Ordezkaritza, Mexiko Hiria.

1.2.- Oinarri hauen I. eranskinean zehazten dira lanpostuaren eginkizunak, ordainsaria eta gainerako ezaugarriak.

2.- KONTRATATZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

2.1.- Euskadiren Mexikoko ordezkariak kontratatuko ditu hautatutako langileak. Ordezkar horrek enplegu-emaila izateko ahalmena izango du, eta lan-kontratua sinatuko du, Mexikon indarrean dagoen lan-araudian adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiekin. Langileak Mexikon lan egiteko kontratatzen dira, eta, horrela, herrialde horretan zerbitzuak emateko beharra desagertuko balitz, haien kontratu-harremana amaitu egingo litzateke.

2.2.- Epaimahaiak hautagai-zerrenda bakarria aukeratuko du.

3.- IZANGAIEN BETEKIZUNAK.

3.1.- Izangaiek hurrengo puntuan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta horiek betetzen jarraitu beharko dute dagokion lan-kontratua amaitu arte.

3.2.- Hauek dira deialdi honetako probetan onartzeko nahitaezko baldintzak:

- a) Mexikoko nazionalitatea izatea edo atzerriko nazionalitatea izatea, eta Mexikoko lan-araudiak lan-kontratu mugagabea sinatzeko eta Mexikon zerbitzuak emateko eskatzen dituen baldintzak betetzea.
- b) Lanpostuarekin zerikusia duten eginkizunetan gutxienez bost urteko esperientzia izatea.
- c) Espainiera jakitea (mintzatua zein idatzia).
- d) Honako titulazio hauetakoren bat izatea: Idazkaritzako goi-mailako teknikaria, Idazkaritza Betearazlea, Idazkaritza Gerentziala, Idazkaritza Elebiduna, Laguntzaile



Exekutiboa edo baliokideak, edo Administrazio, Kontabilitateko eta Laguntzaile Exekutibo eta Kudeaketako karrera teknikoak, edo baliokideak.

4.- PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEA.

4.1.- Hautaketa-prozesuan sortutako informazioa, eguneratzeak eta dokumentuak helbide honetan eskuratu ahal izango dira:

<https://www.euskadi.eus/kanpoko-ordezkaritzen-lan-eskaintza-aktiboak/web01-s1leheki/eu/>

Hautaketa-prozesuari buruzko edozein argibide behar izanez gero, hautagaiek Valeria Lingera jo beharko dute, 5516257127 telefonora deituz edo helbide elektroniko honetara: seleccion_dvg@ieteam.com

4.2.- Deialdi hau Mexikon zabalkunderik handiena duten enplegu-atarietan iragarriko da, bai eta honako hauetan ere:

<https://www.euskadi.eus/kanpoko-ordezkaritzen-lan-eskaintza-aktiboak/web01-s1leheki/eu/>

4.3.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Eskabideak eredu normalizatuan aurkeztuko dira, atal guztietan beteta. Eredu hori oinarri hauen II. eranskinean jasota dago eta web-orri honetan ere deskargatu ahal izango dira:

<https://www.euskadi.eus/kanpoko-ordezkaritzen-lan-eskaintza-aktiboak/web01-s1leheki/eu/>

4.3.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Eskaera horiek, alegatzen den dokumentazio guztiarekin batera, posta elektronikoz aurkeztuko dira honako helbide elektroniko honetara: seleccion_dvg@ieteam.com

Kasu horretan, oinarri hauetan eskatzen diren dokumentu guztiak eskaneatuta erantsi beharko dira.

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 9tik 25era bitartekoa izango da, biak barne.

4.4. – Datu pertsonalen fitxategia.

Izangaiek eskabidean ematen duten informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta fitxategi horren helburua hautaketa-prozesua izango da. Fitxategi honen erabilera eta



funtzionamendua Mexikon Datu Pertsonalen Babesari buruz indarrean dagoen araudiaren aurreikuspenetara egokituko da.

5.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

5.1.- Hautagaien probak, merezimenduak eta betekizunak baloratzeko, epaimahai bat eratuko da. Hauek osatuko dute epaimahaia:

- a) Mexikoko ordezkaria, Jose M^a Cazalis Eiguren, lehendakari izango da.
- b) Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzako enpresa-arduraduna, Martha Márquez, batzordekidea.
- c) Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzako arduradun instituzionala, Itzel Olague Hernández, batzordekide gisa eta idazkari lanak ere egingo dituena.

5.2.- Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu eta deialdia egin duen agintaritzari jakinarazi beharko diote, baldin eta familia-harremana, adiskidetasuna edo ageriko etsaitasuna badute, edo deialdia argitaratu aurreko azken bost urteetan hautaprobetako hautagaiak prestatzeko lanak egin badituzte.

Era berean, aurreko arrazoietakoa bat gertatzen denean, interesdunek edozein unetan errefusatu ahal izango dituzte epaimahaiko kideak.

5.3.- Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du eta objektibotasuna bermatzeko ardura izango du.

Era berean, deialdi hau behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu, eta erabaki horietan aurreikusi gabeko kasuei dagokienez hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu.

6.- HAUTATZEKO PROZEDURA.

6.1.- Epaimahaiak izangaiek deialdian parte hartzeko adierazitako baldintzak betetzen diren baloratuko du eta onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda egingo du.

Izangai bakoitzari behar bezala jakinaraziko zaio prozesuan onartua edo baztertua izan den, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko da eta 10 egun naturaleko epea emango zaio erreklamazioak aurkezteko edo prozesuan onartua izateko eskatzen den dokumentazioa aurkezteko. Epe hori igarotakoan eta aurkeztutako erreklamazioak edo dokumentu-zuzenketak ebatzi ondoren, erreklamatzailerei behar bezala jakinaraziko zaie behin betiko onartu diren edo prozesutik kanpo utzi diren.



6.2.- Hautaketa-prozedurak bi fase izango ditu: oposizio-fasea eta merezimenduen fasea.

6.2.1.- Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira:

Ezagutza-proba, taldeko kasua eta epaimahaiarekin elkarrizketa.

6.2.1.1.- Lehenengo ariketa: lanpostuaren eginkizunekin zuzeneko lotura duen ezagutza-proba bat izango da, honako hau barne hartzen duena:

- a) Euskal Herriko eta Mexikoko kultura orokorreko proba eta lanpostuarekin lotutako jarduerak; bertan, idatzizko adierazpena eta gaztelaniazko ortografia baloratuko dira (aurrez aurre).
- b) Ofimatika, ingelesa, gramatika eta ortografiako trebetasunak ebaluatzeko online probak.

Nahitaezkoa eta baztertzailea da

Gehienez 30 punturekin kalifikatuko da, eta 15 puntu lortzen ez dituzten pertsonak kanporatuta geratuko dira.

Lehenengo ariketa honela kalifikatuko da:

- a) Ezagutza-proba: 15 puntu, gehienez. Ortografia baloratuko da; beraz, ezagutza-proban 10 hutsegite baino gehiago izanez gero, ezabatu egingo da. Falta ortografiko bakoitzak azterketa-puntu bat kentzen du.
- b) Oinarrizko ofimatikako online proba, gehienez 10 puntu.
- c) Ortografiako online proba, gehienez 5 puntu.

Lehen ariketan ondoen ebaluatutako 10 pertsoneri ofimatikako, gizarte- eta lan-arloko eta sozioekonomiako ezagutza aurreratuekin lotutako proba osagarriak egingo zaizkie, beren espedientea osatzeko. Proba horiek ez dute punturik ematen, eta hautagaiaren profil profesionala eta pertsonala osatzeko dira.

Bigarren ariketan, lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu eta ebaluazio osagarriak bete dituzten lehen hamar hautagaiak onartuko dira, gehienez ere bigarren ariketa egin aurreko egunean. Gainerako hautagaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.



Bigarren fasean onartutako hautagairen batek atzera egiten badu (hamar pertsonako zerrenda), aldez aurretik baztertutako pertsonengana joko da, puntuazioaren arabera, prozesuan jarraitu ahal izan dezaten.

6.2.1.2.- Bigarren ariketa: taldeko ariketa presentziala izango da, kasu praktiko baten bidez hautagaiak gainerako hautagaiekin batera duen interakzioa ezagutzeko. Bost laguneko bi talde osatuko dira ebaluaziorako.

Gehienez 20 puntu emango dira. Fase honetan parte hartzen duten hautagai guztiak hirugarren ariketan onartuko dira.

Adecco Training & Consulting-ek ebaluatuko du ariketa hori.

6.2.1.3.- Hirugarren ariketa: jokabide-elkarrizketa bat egingo da, izangaien lanpostuak betetzeko gaitasunak eta trebetasunak baloratzeko. Nahitaezkoa eta baztertzaila da.

Gehienez 25 punturekin kalifikatuko da eta 20 puntu lortzen ez dituzten pertsonak kanporatuta geratuko dira.

6.2.2.- Merezimenduen fasean gehienez 25 puntu emango dira:

IETEAMek eskakizunak betetzeko eta merezimenduak baloratzeko behar den dokumentazio guztia eskatuko du; era berean, proba osagarriak egingo ditu prozesuaren faseen arabera; proba horiek hautagaiak osatu beharko ditu eta bere espedientean sartu beharko dira deialdian parte hartzeko.

- a) Titulazio gehigarriak: gehienez 4 puntu. Puntu bat emango da eskatutakoa baino maila akademiko altuagoren bat izateagatik, eta 0,5 puntu lanpostuarekin zuzenean lotutako ikastaroengatik
- b) Lanpostuarekin zerikusia duten eginkizunetan, eskatzen den 5 urteko gutxienekoaz gain, esperientzia gehigarria izatea. Gehienez 15 puntu lortu ahal dira. Puntu bat esleituko da esperientzia gehigarriko urte bakoitzeko.
- c) Euskara jakitea: gehienez 3 puntu.
- d) Ingelesa jakitea: gehienez 3 puntu.

Hizkuntzen ezagutzak egiaztatzeko, bi modu daude:



- a) Euskararen kasuan: dagokion titulazioa aurkeztuz edo elkarrizketan zehar.
- b) Ingelesaren kasuan: IETEMek bidalitako online probaren bidez.

6.3.- Hautaketa-proben hasiera eta garapena.

Identifikatzeko, hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenek nortasuna edo pasaportearen egiaztatzen duen agiri ofizial (argazki eta guzti) bat eraman beharko dute probetara.

Epaimahai Kalifikatzaileak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie aldeztetik eskabidean eskatu duten ezgaitasunen bat duten izangaiei, gainerako parte-hartzaileen aukera-berdintasuna izan dezaten.

Lehenengo ariketa egin ondoren, izangaiei behar bezala jakinaraziko zaie ariketa hori gainditu duten ala ez, eta 10 egun naturaleko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, erreklamazio bakoitzari jakinaraziko zaio lehenengo ariketan lortu duen behin betiko emaitza.

Lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu duten lehen 10 hautagaien lehentasun-zerrenda egin ondoren, bigarren ariketaren edo elkarrizketaren lekua, eguna eta ordua jakinaraziko zaizkie.

6.4.- Izangaien azken kalifikazioa oposizio-fasean eta merezimenduen fasean lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

7.- GAINDITUTAKO ETA HAUTATUTAKO PERTSONAK. LANPOSTUA HAUTATZEA ETA ESLEITZEA.

7.1.- Epaimahai kalifikatzaileak hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera egingo du gainditu duten izangaien hurrenkera. Pertsona bakoitzari zenbaki jakin bat esleitu eta jakinaraziko zaio, pribatutasuna bermatzeko.

7.2.- Adierazitako behin-behineko zerrenda ezarri ondoren, epaimahaiak horren berri emango du, Euskadiren Mexikoko ordezkariaren ebazpen baten bidez, eta 10 egun naturaleko epea emango du erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Bertan, hautagaien hautaketa-prozesuaren fase bakoitzean lortutako puntuazioa jasoko da, eta aurrez esleitutako zenbakiarekin identifikatuko dira.



7.3.- Epe hori igaro ondoren, eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, Euskadiren Mexikoko ordezkariak ebazpen baten bidez argitaratuko du onartutako pertsonen behin betiko zerrenda, lehentasun-hurrenkeraren arabera, bai eta behin betiko hautatutako izangaiaren izena ere. Hamar (10) egun naturaleko epea emango zaio eskatutako jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuek aurkezteko, eskatutako eta alegatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko. Horretarako, lanpostuaren esleipendunak berariaz baimendu beharko du bere izena prozesuaren azken ebazpenean argitaratzea.

Ebazpenean zehaztuko da lan-kontratua sinatzeko gehienezko epea.

7.4.- Fotokopia konpultsatuek, baliozkoak izateko, honako informazio hau izan beharko dute: data, izen-abizenak eta konpultsaren arduradunaren sinadura irakurgarria.

7.5.- Adierazitako agiriak ezin badira behar bezala justifikatu, izangaiak egiaztatu ahal izango du deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz.

7.6.- Adierazitako epearen barruan (ezinbesteko kasuetan izan ezik) dokumentazioa aurkezten ez duenari edo dokumentazioa aztertuta hirugarren oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, kontratazioa ezetsi egingo da, eta jarduketa guztiak baliogabetuko dira, eta ez da ezabatuko dokumentuak faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizuna.

7.7.- Kasu horretan, Euskadiren Mexikoko ordezkariak hurrengo izangaiaren aldeko kontratazio-proposamena egingo du, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera.

8.- KONTRATAZIOA.

8.1.- Agiriak aurkezteko epea amaituta, hautatutako pertsonari jakinaraziko zaio lan-kontratua formalizatzeko eguna eta ordua Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzan, ebazpen horretan ezarritako epearekin bat etorritz.

8.2.- Hautatutako izangaiak aipatutako ebazpenean ezarritako epean sinatu beharko du lan-kontratua. Epe hori luzatu ahal izango da, baldin eta horretarako arrazoiak badaude.

9.- PROBALDIA.

9.1.- Kontratuan urtebeteko probaldia ezarriko da.



Probaldi horretan, kontratatutako pertsonarengan honako gaitasun hauek ebaluatuko dira: problemak ebaztea, erabakiak hartzea, lanpostuari buruzko ezagutzak, pertsonen arteko gaitasuna, ekimena, antolaketa eta produktibitatea.

9.2.- Hautatutako pertsonak gainditzen ez badu, epaimahaiak dagokion izangaiaren aldeko kontratazio osagarriaren proposamena egingo du, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Horretarako, zerrendako hurrengo pertsona hautatuko du.



OINARRIEN I. ERANSKINA
LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

Lanpostuaren egitekoa:

Ordezkaritzaren idazkaritza-, administrazio- eta kontabilitate-eginkizunak betetzea.

1.- Funtzio nagusiak:

- a) Ordezkaritzako idazkaritza-, administrazio- eta kontabilitate-eginkizunak garatzea.
- b) Herritarrentzako arreta eta harrera-lanak.
- c) Telefono bidezko arreta.
- d) Komunikazioak bidaltzea eta jasotzea.
- e) Agendak, bilerak eta bidaiak antolatzea.
- f) Gutunen, ofizioen, txostenen edo komunikazioen mekanizazioa.
- g) Artxiboak eta dokumentazioa erregistratzea eta antolatzea.
- h) Kontabilitate- eta administrazio-kudeaketa.
- i) Euskadiren Mexikoko ordezkariak zehaztu ditzakeen beste jarduera batzuk.
- j) Jarduera guztietan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak zeharka hartuko direla bermatzea eta sortutako dokumentazio guztian hizkera ez-sexista erabiltzea.

2.- Ordainsaria: \$49,000 MXN (Berrogeita bederatzita mila peso mexikar) gordin hilean, kontzeptu guztiengatik.

3.- Onurak:

- a) Lege-prestazioak
- b) 22 opor-egun urtean

4.- Kontratu mota: kontratu mugagabea. Hautatutako pertsonak bere gaitasuna, trebetasunak eta ahalmenak erakutsi beharko ditu urtebeteko epean, eta ordezkariaren erabakiaren mende geratuko da bere lanpostuan mugarik gabe jarraitu ahal izango duen ala ez.



II. ERANSKINA
DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDE-EREDUA

<i>Deitutako lanpostuaren izena</i>
ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEA

Eskatzailearen datuak	
<i>Abizenak:</i>	
<i>Izena:</i>	<i>Nortasuna egiaztatzen duen pasaporte-zenbakia edo agiri ofiziala (argazkiarekin):</i>
<i>Helbidea:</i>	
<i>Emaila:</i>	<i>Harremanetarako telefonoa:</i>
<i>Desgaitasunen bat izanez gero, beharrezkoa al da ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitzea (kontsultatu 6.3 puntua)?</i>	
Bai: <input type="checkbox"/> Ez: <input type="checkbox"/>	

NAHITAEZKO BETEKIZUNAK (erantsi adierazitako egiaztapenak (ikusi 3.2 puntua))

1.- Mexikon lan-kontratu bat sinatzeko gaitasuna egiaztatzea

Mexikoko nazionalitatea duela egiaztatzen duen agiria aurkeztea edo Mexikon lan-kontratu mugagabea sinatzeko Mexikoko lan-araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzea.

2.- Titulu ofiziala

<i>Titulazioaren izena</i>	<i>Usteak</i>


3.- Eskatutako lanbide-esperientziaren ziurtagiria

<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>Hasiera-data</i>	<i>Amaiera-data</i>

4.- Curriculum vitae (erantsi)
5.- Hizkuntzak

<i>Hizkuntzak</i>	<i>Maila eta ziurtagiria</i>

MEREZIMENDUAK (kontsultatu 6.2.2. puntua eta, hala badagokio, erantsi akreditazioak 4.3. puntuaren bidez).

1.- Formakuntza

Titulazio gehigarri ofizialak eta ikastaroak

<i>Izena</i>	<i>Urteak</i>



2.- Lanbide-esperientzia gehigarriaren ziurtagiria		
<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>Hasiera-data</i>	<i>Amaiera-data</i>

3.- Beste hizkuntza batzuk	
<i>Hizkuntza</i>	<i>Maila eta ziurtagiria</i>

Eskabide honekin batera merezimenduen eta baldintza ebaluagarrien ziurtagirien eta egiaztagirien fotokopiak aurkeztuko dira (ez da beharrezkoa konpultsatzea).

IETEM enpresaren ardura izango da izangaiek eskaera honetan emandako informazio guztia tratatzea, Mexikon Datu Pertsonalen Babesari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Behean sinatzen duenak deialdian onartua izateko eskatzen du, eta eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla adierazten du, eta eskaera honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

..... (e) n, 2023ko..... aren..... (e) (a) n.